

F. M. SAMANIEGO. *Alegiak.*

Itzultzailea: Koldo Biguri. Arabako Foru Aldundia.

ISBN: 84-7821-565-4

Karlos del OLMO

Baten bat harri eta zur geratuko da XXI. mendean ia berrehun eta berrogeita hamar urte arinago idatzitako literatur lan baten beste euskal bertsiio bat plazara agertu dela ikusita. Are harrituago Samaniegoren *Alegiak* euskara batuan datozela egiaztatuaren ondorioz. Izan ere, oso beste garai bateko usaina dakarkigun genero bat dugu begi aurrean. Baina, bestalde, jatorrizko lanaren eragile izan zen izpiritu ilustratu berberak igarri dezakegu honako bertsiio honen atzean bultzagile.

Alegiek, gutxienez, hogeita hamar mendeko historia luzea dute. Kristo aurreko VI. mendean Nixhue errege pertsiarrek gorteko medikua bidali zuen Indiara belar batzuen bila, hildakoak berpizteko ahaltasunaren jabe zirelakoan. Saiatu gogotik saiatu zen barberua, baina dena alferrik izan zen. Inguru haietako adituei itaundu eta berak belar zeritzenak liburu sorta bat zirela esan zioten, ezjakinen endelegamendua argitzeko paratua. *Calila eta Dimna* esaten zieten, izendapena lehenengo kontakizunaren izenburua baino ez zen arren. Jakintsuek eta sazerdotek idatzirikoak ziren eta animallak zerabiltzaten protagonista erlijio eta moral irakaspenak igortzeko.

Barzuyeh medikuak *pahlevierara*, Pertsiaiko hizkera literariora aldatu eta etxera eroan zituen. Itzulpenari *Panchatantra* apologo hinduen bilduma erantsi zien. Hala osatutako aleak erregeen irakasgai eta aholkulari izan beharko zuen. Bertsiio hura eta sanskritoazko aldakia, zoritxarrez, galduta daude, nahiz eta beste bi itzulpen (haietako bat, arabierazkoa) heldu diren gaur arte. Arabieratik, grekora, pertsierara, hebraierara eta gaztelaniara heldu zen. Itxuraz, gaztelaniaz-

koak eta latinezkoak gordetzen bide dituzte ondoen jatorrizkoaren mezua eta itxura.

Indiatik ekarritako hazi hark lurrik goxoena Grezian topatu zuen. Gainera, garai hartan literatura herri gehienetan erlijioaren mezua hedatzeko lanabesa baino ez zen arren, Grezian generoa areago hasi zen literaturaren bidea ebakitzen. Pertsian apologoak nagusitu ziren, hau da, animalien balentrien eta menturen gaineko kontakizunak, lagun eta edergarri zituztela azpikeriak, joko maltzurak, adimena eta intriga tanta batzuk. Erdi Aroan apologoak sartaldera heldu ziren, baita Frantzian zein Espainian XII. mendearen bueltan arrakasta handia lortu ere. Grezian animaliak edertasun baliabidetzat jotzen zituzten, eta alegia poema txikiaren balio linguistikoagatik beragatik gailenduz joan zen.

Adituek genero didaktikoen baitan kokatzen dute Samaniegoren lana, ezbalirik gabe. Eta, seguru asko, ezin uka daiteke oso aukerabide ona egin zuenik halako ezaugarriak lana paratzean. Animaliak giza kultura gehienetan agertzen direlako ikur edo totem moduan. Eta, bestalde, erraz ere erraz, idazleak kritikatu edo islatu gura dituen gizakiak agerian jarriko ditu, baina behar baino gehiago arriskuan jartzeke. Bestalde, literatura klasikotik ezagunak ziren halako piezak: bestiarioa, fabularioa, fisiognomia, enblematika... Ez da ahaztu behar, gainera, jatorrizko bertsoak argia ikusi zuen mendean, gizakiei animalien ezaugarriak gaineratzea oso ohikoa zela. Arteak ere piztiak gizatiartzen zituen edo, bestela esanda, gizakiak pizti bihurtzen. Pentsatzea ere badugu bestiarioa eta fisiognomia txanpon beraren bi aldeak besterik ez direla. Batean, animaliak gizaki bihurtzera-koan, balio sinbolikoa eransten diete, bestean, ordea, gizakiak animalia egiterakoan, bestelako harreman esparru batera eroaten ditu.

Tradizio luze bati lotu zion Samaniegok bere garalko gizarte tradizionala garai modernoetara saka egiteko. Iturri klasikoei emari oparora zerien artean ere: Esoporen prosa, Fedoren berba neurtuak eta, Penintsulari dagokionez, Erdi Aroan arabiarak bitarte, Sortaldetik eta Afrikatik etorritako tradizio aberatsa. Erdi Aro hispanikoak atxikimendu handia erakutsi zion sailari, hainbat bilduma plazaratu zituzten, hasieran latinez eta geroago erromantzeetan. Nabarmenak asko dira, baina bilduma oso bat berezko distiraz nabarmentzen da: Don Juan Manuelen *El Conde Lucanor* obra barruko printzeen erakusgarri *Exiemplo* bilduma. Alegiak, bertsoz idatzirikoak, bakanago

agertzen ziren, baina erraz pentsa daiteke herri lirikarekiko lotura sendoko lanak zirela. Animaliak protagonista zituzen kontakizunak joan-etorri etengabean ibili ziren ahozko literaturatik idatzizkora eta idatzitik ahozkoa.

Erdi Aroan animaliek bi bide oparo eskaintzen zituzten literaturan: batetik, garaiko errealitate politiko, soziala, erlijioso jasotzea eta, bestetik, mundu ezezagunaz fantasiak sortzea: munstroak, irudimenezko animaliak, nazio edo kultura bakoitzaren irrikak eta mamuak irudikatze bidea. Animaliak gizartearen balioak irudikatze adrezu ezin hobeak ziren. Zertan esanik ez dago mundu horrek euskal gizartean, esaterako, gaur arte bizirik dirauela, bai literaturan, batez ere ahozkoan, bai hizkuntzan, animalien gaineko esamoldeak eta irudiak bizirik daudelako oraindik ere eguneroko hizkuntzan. Nahiz eta, seguru asko, globalizazioa eta nekazaritza unibertsoaren desagerpena direla bide, ezin esan liteke hemendik urte batzuetara zertan izango den hori dena.

Nolanahi ere den, gaztelaniaz hemeretzigarren mendea arte etengabe agertu izan dira plazara alegiak, gehienak hitz lauz, dela joera humanistak indartzen zirelako, dela argitaletxeek irabazpidea segurtatzen zutelako gaztetxoentzako literatura didaktikoa bitarte zela. Hari hori guztia ez da ahaztu behar Samaniegoren lana hutsetik sortu ez zela ulertuko badugu. Samaniegok berak Esoporen eta Fedoren lanak erabili zituen irakurgai. Ze berritasun ekarri zuen, bada? Gaztelaniaz eta bertsoz plazaratzea. Baina klasiko horienetz gain, han-hemenka sakabanatutako beste batzuk ere jorratu zituen. La Fontaineren lan eskergaren berri izatea ere mugarri gertatuko zitzaion.

Hamazortzigarren mendeko adituek, adibidez, generoa ahaztu samar zuten gaztelaniaz eta bertsoz hain alegi gutxi argitaratu izanaren ondorioz. Izendapenari berari dagokionez, apologo deitura zaharra erabiltzetik alegia usatzera igarotzen ziren; alegiak, azkenean, nolanahi ere den, eskua irabazi zuen. Samaniegok berak bi izenoz gain, *ipuintxo* ere esaten zien bere sorkariei.

Apurka-apurka alegiak genero txikiagoen artean jasotzen hasi ziren jakintsuak, animalia protagonista duten ipuin moralizatzaileak. Animaliez gain, landareak, gauzak eta beste protagonista jendetu batzuk ere ager daitezkeela diote. Azken buruan, ezaugarri komun bat izango du generoak: gizaki ez direnak hizketan jartzea. Horrek,

jakina, errealismo zalerik sutsuenen aurkako jarrera piztu zuen. Baina generoak, itxuraz, berez eta bestelako barik, oso ondo defendatzen zuen bere burua.

Bertsozko jantzia gorabehera, alegian ezinbestekoa da ikasbidea, ondorio morala. Teknika aldetik, hasieran zein amaieran joan daiteke xede moral edo pedagogikoa. Kontua, sarritan, helburu hori edertzea, ulergarriago egitea eta, zelan edo hala, irensten errazago egitea da, eguzkiari zuzen-zuzenean, arartekorik gabe, begiratzerik ez dagoen moduan, helburu moral hutsa gordinegi gerta daitekeelako.

Balio horiek, hasieran adierazi legez, arrotzegi sentitu daitezke gaur egun. Baina euskarazko lehen bertsoia ez izan arren, Koldo Bigurik euskara batuan eta euskal lirikako ohiko neurri batean eman dizkigu alegiok. Hizkuntz normalizazioaren aldetik, hizkuntzaren estatusari dagokionez, ekarpenaren balioa ezin ukatuzkoa da. Helburu pedagogikoa den bezainbatean, inoiz baino ageriago geratuko da egungo kalearen eta baserriaren arteko aldea, amildegia ez denean.

Samaniegok alegiak Bergarako Mintegian hezibidetzat erabiltzeko idatzi zituen. Esopo eta Fedro oinarri hartuta, xede hizkuntzaren ezaugarriak eta berritasun aire bat ere ipini gura izan zituen, beraz, apologoaren gorputz nagusia, helburu pedagogikoa gordeta, hau da, azalberiturik.

Alegi bilduma klasikoa jasotzen du liburu honek, eduki erotikodun ipuintxo batzuk sunstitzeko eskatu zuelako egileak. Ipuin libertino guztiak ez dira galdu, baina halakorik ez da agertzen bilduma honetan. Itzuli baino; Samaniegok moldatu, egokitu eta berritik sortu zituen alegigintzako gai klasiko batzuk. Hala, esatea dago ezen tradizioaren matazan hari berri eta sendoa erantsi zuela egileak. Ukitu poetikoa erruz kutsatu zielako. Jakina, manikeismoa osagarri ezinbestekoa dute alegiok, mundu ikuskera jakin bati dagokionez. Azken buruan, ez da antzera gertatzen maskarada, pastoral eta bestelako antzinako arte produktuetan?

Teknika aldetik alegiok duten eraginkortasuna ezin ukatuzkoa da, azken buruan, idazleak parada ezinago ederra zituelako Bergarako Mintegiko ikasleak, haiek zerabiltzalako idazkienganako harrera neurtzeko. Narrazioa ez du beharrik gabe korapilatzen, ulermena beti ere gailen uztearren. Xalotasuna, gardentasuna, umorea, ulerte-

rraztasuna... horra hor bere estiloaren ezaugarri nagusiak. Guztia-ekin ere, idazleak ezin ezkuta lezake pertsona ikasi eta landua zenik eta ia ezari-ezarian, han eta hemen hainbat arrasto eta aipu kultu utzi zituen.

Ezin alegiak hizpidera ekarri ikaskizunaren ideologia edo eduki morala albo utzita. Gustura ikastea? Jakinal Besteren buruan ikastea edo, bederen, eskarmentu hartzea. Baina, zer irakatsi gura izan zuen Samaniegok? Ohiko gizartearen balioak ala gizarte ilustratu batenak? Pentsatzekoa denez, kutsu klerikala utzita, aurrerazaleago bat igorri zuen. Eta mezu horretako eduki batzuk egun ere bizirik daude (aldeak alde): klase buruzagien alferkeria, justiziaren balioa, aldaketaren beldur ez izatea, arrazoia bizitzaren gobernatzaile izatea, halako berezko sen moral bat...

Gaur egungo frogarrien arabera, ezin esan daiteke Samaniego euskal hiztuna zenik. Euskarazko berba edo esamolde batzuk jakin jakingo zituen, izan ere. Eta euskara zelan edo hala menderatuko balu ere, euskarazko izkriburik ez zuen utzi. Baina ezin uka daiteke, bestalde, haren lanak ildo joria ireki zuenik euskal alegi zaleentzat, baina euskarazko alegi lanik ezagunenak XIX. mendekoak dira.

Eta, horiek denak horrela, zer esan daiteke Koldo Bigurik prestatu-riko itzulpenaren gainean? Edo sarrerako itaunera itzulita, inguruabar horiek guztiak gogoan, zelan eman XXI. mendean euskaraz lehendik bestelako edizio batzuk izan dituzten alegiok? Sarreran bertan dioskunez, itzultzaileak neurri librean ala euskal tradizioko neurriren bat erabili behar zuen erabakitzeke kinka agertu zitzaion. Ondo jakinda, gainera, aukerak guztiz, errotik baldintzatuko zuela itzulpena. Baina, zalantzak zalantza, zortziko nagusiaren aldeko hautua egin zuen. Hala, neurturik eta puntuz emateaz gain, helburu pedagogikoa ere lortzeko bidean jarri zen. Aldaketa formalak egitera premiatuta ere egon zen: Samaniegok sei bertso lerrotan emandakoa, itzultzaileak zortzitan ordaindu behar izan du. Lantzean behin, zortziko txikia edo zaharra, beste neurriren batez gain. Beste ezer gaineratzerik ez dago, beraz, ezinbestean beste bertsiorekin egingo du topo irakurleak. Baina, hain da gaitza itzulpenaren eta bertsiorekin muga argiro marraztea bertsoari dagokionez! Eta beste arazo formal bat: edizio elebiduna izanda, elkarren ondoan joan beharrak euskarazkoa lar ez luzatzera behartu du. Edonondik aztertuta ere, lan eskergea eskergetan. Eta horiek guztiak hala, guztiarekin ere, bere golkotik

oso gutxi gaineratu du Koldok, berak dioen legez, "jatorrizkotik ahal bezain hurbil eta behar bezain urrun" ibili delako. Ez dira bi beharkizun horiek ugazaba makalak!

Bestelako auzia dateke argitzea ea batuan emandako alegi horiek egungo euskal umeei zer edo zer esango dieten. Baina pedagogia eta hizkuntz kontuetan oso jakina zertan izanik ez dago berehala konturatzeko Bigurik landutako alegiok, kontakizun laburrok, egungo ume kaletar askoren eguneroko esperientzietatik urrun dauden arren, oso baliagarri gerta daitezkeela hizkuntza bera lantzeko ez ezik, dramatizatorako material aberatsa eskaintzeko eta egun gure gizarteak hain beharrezko dituen etika eta moralak mintzagai eta eztabaidagai erabiltzek ere. Hartzailea eduki jakin batez jabetzea, gauza jakina denez, proposatutako edukien eta entzuleen edo irakurleen egitura kognitiboen arteko orekan dago. Alegietako mundua urruna gerta daiteke, baina fantasia dela bitarte, umeak jausi erraza egin dezake eguneroko esperientzietarako ikasbidea lortzeko.

Gauza ezaguna da hainbat itzulpenetan izenburua beste hizkuntza batean ematea izaten dela eginbeharririk gaitzena edo, gutxienez, hainbat okerren iturburu izan dela. Zer ez da esango, orduan, ia bi orririk behin izenburuak itzultzen jardun behar izaten denean? Alegi bakoitzaren izenburuak erabaki beharrak, ia bestela baitakoan, okertzeko bidea ekar lezake. Baina erromantzeak eta herri lirika lan gogoangarri batzuetan ondo ezagutzen duela erakutsi du itzultzaileak langai horretan ere.

Samaniegoren esanetan, "itxuraz soilik arduratzeak/kalte ugari dakartza". Euts diezaioگون, beraz, mamiari!